

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Berrikuntza, nazioartekotzea eta ekintzailtza hizpide, Euroeskualdearen Mugaz gaindiko Lanbide Heziketa Kooperazio Jardunaldietan

Akitania, Euskadi eta Nafarroako adituek elkarlan proiektuak aztertu dituzte gaur Lizarran

Ostirala, 2018.eko azaroak 9

Nafarroako gobernuko Hezkuntza departamentuak modernizazio, lanbide heziketa duala, ikastetxeen nazioartekotzea, ekintzailtza eta berrikuntza metodologikoak aurkeztu ditu lanbide heziketaren lan-lerro nagusi gisa, Mugaz gaindiko Kooperazio jardunaldietan. Lizarrako zentro integratuan egindako saioan Akitania, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdeko adituek aritu dira. Bosgarrenez egin da saioa, ikastetxe eta erakundeen arteko elkarlanari jarraipena emanez.



Euroeskualdearen Mugaz gaindiko Lanbide Heziketa Kooperazio Jardunaldietan parte hartu dutenek.

Gaurko saioa Berrikuntza eta Aldaketaren Kudeaketa zuzendari Samuel Triguero hasi du “Mugaz gaindiko praktiken komunitatearen eraikuntza” izeneko hitzaldiarekin. Hiru eskualdeetako Lanbide Heziketako ikastetxe-zuzendariak esperientziak eta ekimenak partekatzeke aukera izan dute, jardunaldietan egindako lan-saioetan.

Ekimen kolaboratiboen garrantzia azpimarratu du Departamentuko Lanbide Heziketa zerbitzu-zuzendari Esther Monterrubiok, “hainbeste denboran jardun izanak parte hartze handia ahalbidetu baitu”. Hezkuntza departamentuarentzat, eta zehazki Lanbide Heziketa zerbitzuarentzat, giltzarri eta beharrezko da eskualdeen arteko elkarlana, “bereziki kultura, tradizioa eta hizkuntza partekatzen ditugun eskualdeen artean, testuinguru sozio-ekonomiko antzekoa dugunon artean”, adierazi du Monterrubiok.

Era honetako ekimenak aukera dira administrazioak ezagutu ditzan lanbide heziketaren aldaketa eta berrikuntzaren benetako premiak. Hala, Monterrubiok azaldu duenez, “jardunaldiek balio dute ikustarazteko eta lan egiteko lanbide heziketak barne hartzen duen kate osoa, ikasleekin ikasketa metodologia berriak aztertzen dituzten lantaldeetatik hasi eta ekoizpen eremuaren beharretaraino: lanbide heziketa duala, enprekin hartu-emanak eta ekintzailtza”.

Jardunaldien bosgarren aldia izan da gaur Lizarran egindakoa eta lanbide heziketarekin harremana duten hiru eskualdeetako 90 lagunetik gora elkartu dira.